


IGARTUBEITI FAMILIAN. HEZKUNTZA PROIEKTUA



KAIXO, ONGI ETORRI!

Igartubeitin **adin goiztiarretatik** hasita, ondarearekiko sentsibilizazio eta errespetu guneak sortzea eragiten duten zenbait jardueren bitartez, bereziki **familiekiko** harremanean eta loturan lan egiten dugu. Hurbileko eta famili giroaren bitartez eta lengoai ezberdinen bitartez, txikitxoek beraien ingurunea ikuskatzen ikasten dute, era berean ingurunearekin elkar eraginez, beraien jakin-mina eta sormena piztuz.

NOLA? ARTEA + JOLASA + IKASKETA= PARTE HARTZEA

Arte eta **jolas adierazpenetik**, **jolasa** sorkuntza prozesuetan integratuz, parte hartze, komunikazio, hausnarketa eta esperimentazio guneak sortzen ditugu.

Ondarearen ikuspegi zabaletik abiatuz: kultur, natur ondarea baita materia gabea, soinu-ondarea... ere Gure ingurunearekiko harremanen eta **behaketa aktiboaren** garrantzia azpimarratzen du.

ZERGATIK?

Ondare hezkuntza artistikoa irekia dagoen bide bat da, tekniken, prozeduren, sorkuntzaren eta zentzumen pertzepzioen bitartez. modu aktibo batean ingurunearen ulermen, ikusmen eta entzumen formekin lotzen dituzten prozesuez osatua dagoena.

Gainera...

- Adierazpen tresna gisa, **artearen eta jokuaren** bitartez, pertsonen eta gizartearen eraldaketaren sorkuntza ahalmenak sustatzen ditugu.
- Arteak eta bere sormen prozesu ezberdinek **ideiak uztartzen** eta norbanakoaren ahalmenetik abiatuz hausnarketak sortzen laguntzen gaituzte, **autonomia eta ahalmen kritikoa** sustatuz.
- Arteak beste lengoaien bitartez **esperimentatzea** ahalbidetzen digu. **Errealitate berriak imajinatzen** zein sortzen laguntzen gaitu, existitzen direnak birplanteatzen, galderak, akatsak eta frogak eginez, erabakiak hartzen ere lagunduz.

ZE GAI LANTZEN DITUGU?

Kultur ondarea: materiala, materia gabea / Kultura garaikidea eta bere adierazpen ezberdinak: arte-bisualak, literatura, animazioak, arte eszenikoak... / Natura / Paisaia eta nekazal mundua/ Baserriaren Mundua: giza harremanak, arkitektura / Euskal kultura, euskara / Ingurugiro eta jasangarritasuna / Historia / Beste kulturak.

NOLA EKITEN DIEGU GAIEI?

Tailerrak eta saioak **zuzenduak** daude:

- Familiei hurrekin. Famili tailerra. (3 urtetik aurrera)
- 6tik 12 urte bitarteko haurrak. Tailer bakoitzean gomendagarria den adina zehazten da.
- 12 urtetik aurrerako proposamenetan lanean dihardugu.





NOLA PARTE-HARTU DEZAKET?



**PROIEKTU HONETAKO PARTAIDE GISA, ZURE PARTE
HARTZEA INTERESA ZAIGU!**

**ETOR ZAITEZ, JOLASTU, SORTU, PARTEKATU ITZAZU ZURE
IRUZKINAK ETA IDEIAK...**

PARTE HARTU, ZUK ERABAKI NOLA!

MILA ESKER!

IGARTUBETI FAMILIAN 2016-2017 PROGRAMA

TOPAKETA- FAMILIA PROGRAMAREN AURKEZPENA // IRAILAK 24

Gerturatzten zareten gurasoei prestatu dugun tailerrak aurkeztuko dizkizuegu eta horren harira solasaldian arituko gara gure arteko ideia trukaketa bat eginez.

1. “ARTO TAILERRA” // IRAILAK 24

5-8 urteko haurrei zuzenduta

Ameriketatik artoa iritsi izanak aldaketa ugari ekarri zituen Euskal Herriko baserrietan, hala ere, ez zen hau bertara ailegatu zen produktu bakarra izan. ¿Ezagutzen duzu baten bat gehiago? Arto gizona ezagutuko dugu tailer dibertigarri baten bitartez.

2. “SOINUAK HARRAPATZEN” // URRIAK 1

5-8 urteko haurrei zuzenduta

Igartubeiti museoan jarritako Nader Koochaki artistaren “Soineko Paisaia” erakusketatik abiatuta, begiak itxi eta entzuten dudan horri erreparatzen badiot, nola jasotzen dut inguruan dudan hori? Zer ulertzen dut? Jolasa muina izanik pertzepzio sensoriala eta gorputzaren adierazpena landuko ditugu.

3. “SAGAR TENTAGARRIAK” // URRIAK 8

5 urtetik gorako haurrak dituzten familei zuzenduta

Tailer gastronomiko sensoriala.

Urria sagarrak jasotzeko garaia izaten da. Sagar aukera ugaria dago, hots, gozoak, gaziak, gezaminak eta mikatzak. Hau jakinda, gustatuko litzaizuke horiek dastatu eta postre goxo bat egitea? Hala bada gerturatu gurera!!

4. “TALOAK EGITEN (HIP HIP URRI!)” // URRIAK 22

4 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta (Adinaren arabera taldeak osatuko ditugu)

Behin artoa jaso, aletu, lehortu eta ehotu ostean, behar dugun irina eskura izango dugu. Hori horrela, tailer honetan taloak eta morokila egiteari ekingo diogu.

5. “NONDIK NATOR NI? NIRE FAMILIA EZAGUTZEN // URRIAK 29

8-12 urteko haurrei zuzenduta

Ziur nago zure familiako kideren bati bizitzako uneren batean emigratzea tokatu izan zaiola. Hori horrela, denon artean mural kolektibo bat sortuko dugu gaia irudikatzeko.

6. “HITZEN DANTZA” // AZAROAK 12

6-10 urteko haurrei zuzenduta

Tailer idazte sortzailea.

Tailer honetan haurrak artista bihurtuko ditugu. Horretarako, hitz batzuk emango dizkiegu eta horiekin istorio bat asmatuko dute.

7. “ERLEEN HIRIA” // AZAROAK 26

8-12 urteko haurrei zuzenduta

Erleak eta gizakiak, nola elkar komunikatzen gara? Haurrak erleen inguruko informazioa jasotzeko aukera izango dute, euren bizitzaren berri izan eta gurearekin alderatu. Tailer amaieran maketa bat egiteko aukera ere izango dute aipatutako gaia oinarri izanik.

8. “EUSKARAREN EGUNA: IPUIN KONTALARIA” // ABENDUAK 3

6-10 urteko haurrak dituzten familiei zuzenduta

Patxi Zubizarretaren “Baserriak barre egiten duenean” kontakizun laburrean oinarritutako kontakizuna, euskarazko kontakizun laburren bigarren lehiaketan lehen saria lortu zuena.

9. “TXONTXONGILO TAILERRA // ABENDUAK 17

5 urtetik gorako haurrei zuzenduta

Gabonekin batera izaki mitologikoak itzultzen dira Igartubeitira: Tartalo, Mari, Basajaun... Hori horrela, horietako bakoitza ezagutzeko aukera izango dugu Igartubeitiko sukaldearen inguruan, eta amaieran, txontxongiloak egingo ditugu